

# gaz-teak



Doako alea

315 Zb.  
[www.getxo.eus](http://www.getxo.eus)

>> 2017ko uztaila

## Nabarmen<sup>tzekoak</sup>

- > Ur-kirolak egiteko jantzi adimentsuak sortu dituzte
- > Nazioarteko Paella Txapelketan segurtasuna handitzeko proiektu pilotua
- > GLOBAL TRAINING 60 mugikortasun-beka





## Europar lanean, oportetan

Udako oporrak une egokia dira atzerrian lan egiteko, beste hizkuntza bat hobetzeko edo beste herrialde batzuk, hango bizilagunak eta beren ohiturak ezagutzeko. Gazteak Euskadiko gazteriaren atariak horri buruzko informazio asko biltzen du. Lanpostu ohikoena, honako lan hauetan izaten dira: udalekuekako zein haize ageriko jarduerak eta kirolak egiteko, sorosle, animatzaile turistiko, nekazaritza eta baserriak, itsas-bidaiarien eta bestelako ontzietan, konterba-entresak, eski estazioak eta abar. Lanpostu horietan interesa duten pertsonak Gazteak Euskadiko gazteriaren ataria bisitatu dezakete. Lana topatzeko enpresa eta plataformak: <http://www.gazteak.euskadi.eus/informazioa/oporretako-edo-urte-sasoiko-lanak-europar/r58-5072/eu/>



## Txartel erabilgarriak udan

Oraindik ere zure oporrak ari bazara prestatzen, jakin beharrekoa duzu txartel oso erabilgarriak daukazula Europar barrena mugitzeko. Horien artean daude, besteak beste, Aterpe-kide-agiria, Europako Gazte Txartela, Go-25 (ITIC) Nazioarteko Agiria, Nazioarteko Ikasle Txartela (ISIC) ETA Nazioarteko Irakasle Txartela (ITIC). Txartel horiek eskuratzeko informazio guztia [www.gazteak.euskadi.eus](http://www.gazteak.euskadi.eus) webgunean dago (aisialdia eta denbora librearen bidaiatu atalean) eta Gazte Bulegoan ([gaztebulegoa@getxo.eus](mailto:gaztebulegoa@getxo.eus) eta 944 660 353).



## GLOBAL TRAINING 60 mugikortasun-beka

30 urtetik beherako gazteek 6 eta 9 hilabete artean lan egiteko aukera izango dute hitzartutako enpresetan, hainbat herrialdetan: EEBB, Txina, Argentina, Txile, Mexiko, India eta Europako herrialde askotan. Horietan lan egiteko baldintzak dira LHko goi mailako gradua edo lizentziatura bat edukitzea, baita ingelesko B2 edo C1 maila ere, kasu bakoitzaren arabera. Proiektuak oso bestelakoak dira eta horregatik askotariko profilak behar dira: besteak beste, mekatronika, mantentze, azterketa-laborategi, merkataritza kudeaketa eta marketing eta haur hezkuntzako LHko goi-gradutik ingeniari edo ekonomistaraino. Eusko Jaurlaritzak bultzatutako beka lortzen duten 60 gazteak urrian abiatuko dira egokituz haien herrialdera, baina lehenago hautatze-prozesu bat gainditu beharko dute. Horretarako uztailaren 14ra arte dute epea izena emateko. Argibideak: [www.globaltraining.eus](http://www.globaltraining.eus) edo [www.ikaslan.net](http://www.ikaslan.net) edo [www.afm.es](http://www.afm.es).

## Gaztelekuaren programazioa

### Uztaila

**Hilak 6, osteguna:** TOPAKETA

**Hilak 8, larunbata:** MASTERCHEF LUDOTEKAREKIN: IZOZIA

**Hilak 13, osteguna:** TINIEBLAK

**Hilak 14, ostirala, eta 27, osteguna:** DISAKRIMINAZIOAREN AURKAKO HILABETA

**Hilak 19, asteazkena:** LEHIAKETA: SASKIBALOA

**Hilak 21, ostirala:** GAZTE GARBI JAIA

**Hilak 22, larunbata:** IRTEERA: PINOSOLOKO IGERILEKURA

**Hilak 29, larunbata:** IRTEERA: PADDLE SURF

Emerid sistemaren bitartez, erabiltzaileen informazio medikoa eta pertsonala transmititzen dute segundu gutxitan

## Ur-kirolak egiteko jantzi adimentsuak sortu dituzte

Egia bihurtu da *Smart wetsuits* proiektua, ur-kirolak egiteko jantzi adimentsuak sortzeko 2016ko Wanted ideia lehiaketa irabazi zuena. Iñigo Bordek eta Javier Estebanek sustatutako proiektu honek 7.300€ko diru saria eta Udalaren aholkularitza jaso zuen eta jada lortu du munduko lehen neopreno jantzi adimentsua; izan ere, gai da segundu gutxitan, erabiltzaileen informazio medikoa eta pertsonala transmititzeko. Horretaz gain, umeentzako bainujantzi adimentsuak ere sortu dituzte, baita oraindik argitu nahi ez duten beste hainbat proiektu ere.

Wanted lehiaketan irabazitako lehenengo sariari esker, *Karma Technologies* sortu berri duten bost pertsonen buruan bueltaka zuten arazoaren irtenbidea gauzatu ahal izan zuten: hondartzetako istripu eta galeretan laguntzea, baita pertsonak identifikatzeko prozesu geldoa arintzea ere.

### Emerid sistema

Larrialdietarako identifikazio-sistema da, NFC teknologiaren bitartez, ahalbidetzen duena unean neopreno jantzitik edo bainu jantzitik erabiltzaileen informazio pertsonal, medikoa eta kontaktatzeko guztia hartzea. Modu sinplean, Smartphone, Tablet edo NFC teknologia duen eta Internetekin konexio duen beste edozein



gailu elektronikoa bat berehala sartzen da Emerid plataformara, Emerid Nfc Point-aren gainean jarritik. Segurtasun neurriak direla eta, ezinbestekoa da gailu elektronikoa Emerid NFC Point-etik gutxienez 2 zentimetrora egotea, datuak irakurri ahal izateko; bestela beste edozein pertsona eskuratu ahal izango lituzke datu horiek. Horrela, senideekin kontaktatu ahal izango da, ebazketaren kasuan jantziaren edo bainu jantziaren jabea identifikatu ahal izango da, istripu kasuan larrialdietako zerbitzuekin kontaktatu, osasun langileei kokapena eta aurrekari medikuak eman...

Merkatuko lehenengo neopreno jantzi adimentsua Seland enpresa bizkaitarrarekin garatu dute. Neguko 4/3 neurriko jantzia da eta irailean hasiko dira saltzen. Umeentzako jantziak uztailean egongo dira eskuragarri [www.emerid.com](http://www.emerid.com) webgunean.

Karma Technologies enpresaren asmoa da ahalik eta entitate eta erakunde gehienekin aritzea elkarlanean. "Salbamendu eta osasun languntza eskaintzen duten entitate eta erakundeek informazioa eskaintzen ari gara eta akordioak sinatzen, besteak beste, Gurutz Gorria, DYA, Osakidetza, Ertzaintza, Itsas salbamendua, surf federazioak..."

## Nazioarteko Paella Txapelketan segurtasuna handitzeko proiektu pilotua

Nazioarteko Paella Txapelketa datorren uztailaren 23an egingo dela eta, Udalak proiektu pilotu bat abiatu du Itxas Argiak Aixerrorako zelaian paella lehiaketa antolatzen duen esparrutik kanpo dagoen gunean segurtasuna handitzeko. Egitasmo horrek neurri sorta bat jasotzen du Udalak urtero egin ohi dituen jarduerak osatzeko, txapelketa ahalik eta segurtasun, ordena eta garbiketa baldintza handienetan ospatzea ahalbidetzeko.

Udalak Itxas Argia elkartearekin kolaboratzen du: hesiak, komunak, hondakinentzako edukiontzia, agertokia eta ur-harguneak ipiniz, zelaiko belarra moztuz eta abar; halaber 11.500 €ko diru-laguntza ematen dio, udalarena den esparruan txapelketa egiteko baimena emateaz gainera. Jaiaren zati bat lur pribatuetan egiten dela kontuan hartuta, eta hortaz, paella txapelketa ofizialaren parte ez denez, aurrean hainbat neurri hartu dira, azken urteotan gero eta jende gehiago biltzen delako hizpide dugun eremu horretan, eta bertan altxatzen diren eraikinak gero eta handiagoak direlako. Neurri horiek lurren jabe diren erakunde eta per-



tsonekin adostu dira. Helburua da, ahal den neurrian, jaiari lotutako arriskuak gutxitzea, hau da, egurrez egindako eraikinek eta jaiaren inguruan biltutako suteek eragin ditzaketen arriskuak. Horretarako ebakutzeko bide eta guneak finkatu dira, eremuaren barruan segurtasun korridoreak ezarritik eta ur-harguneak hurbilduz. "Proiektu aitzindariaren helburua ez da, inolaz ere, gure herrian oso sustatuta dagoen jarduerak galaraztea, baizik eta arriskuak kudeatzeko lan egitea, eta horrela paellen jaiak era in-

formalean ospatzeko elkartzen diren pertsonak, gehienak gazteak, beraien-tzako segurtasun baldintza hobea-gotan izateko neurriak barneratzen joatea lortzea", zehaztu du Koldo Iturbek, Kultura zinegotziak. Hori guztia udal sail desberdinen artean koordinatuta egiten ari da eta tokian bertan lan egingo duen profil desberdineko pertsonen lan taldea eratzea aurreikusten du. Hori aldiari aldiari gunera hurbilduko da eta segurtasun handiagorekin jaiak gozatu ahal izateko gomendioak helaraziko dizkie koadrilei.